

MOZIO ARRUNTA

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Kutxa Fundazioaren departamentu teknikoak Ayesa IT erosten parte hartzeaz egindako txostearen gaineko MOZIO ARRUNT hau aurkeztu du.

JUSTIFIKAZIOA

Urrian, Ayesa Implementaciones Tecnológicos, S.A. (aurrerantzean, "Ayesa IT") hartzeko eskaintzan parte hartu behar zuela iragarri zuen BBK fundazioak, eta 500 milioi euro inguru eskainiko zituela. Eskaintza hari, Indar Kartera (Kutxabanken inbertsio-funtsa) eta Eusko Jaurlaritza gehitu zitzaizkion, eta abenduaren hasieran, irabazi egin zuten enkantea.

Partzuergo horrek Kutxa Fundazioa gonbidatu zuen Ayesa IT hartzeko eragiketari sartzeko aukera azter zezan, Ayesa IT Ayesa Ibermática SArekin jabea dela eta. Hala ere, 2025eko abenduaren 22an, Ayesa ITren sail teknologikoa erosteko partzuergoan parte ez hartzea erabaki zuen Kutxa Fundazioaren patronatuak. Parte hartzeari azkenean uko egiteko arrazoiak Kutxa Fundazioaren departamentu teknikoak egindako txostenean daude. Txosten hori bileran aurkeztu zen, eta ez zuen parte-hartzea gomendatzen.

Prentsara ailegatu den azterketan zetozen arrazoiaren arabera, Kutxa Fundazioko teknikariek defendatzen zuten eragiketa hura ez zela erraz txertatzen Fundazioaren plan estrategikoaren ikuspegiaren eta aurreikuspenetan, eta negozio, arrisku eta itzulera trinomioak ez zuela inbertsioa egitea justifikatzen.

Handik aurrera, erakunde batzuk presio handia egiten hasi ziren Kutxa Fundazioari, Ayesa IT erosteko eragiketan sartzeaz zeukan jarrera berriz azter zezan, eta, erdi-esan zuten, hala egin ezean arriskuan jar zezakeela Ayesa Ibermática SAREN egoitzak Donostian segitzea. Hala, 2026ko otsailaren 20an, zalantza guztiak argitu zituen lehendakariak, eta Eusko Legebiltzarrean jakinarazi zuen Ayesa ITren erosketan parte hartu zuten guztiak bat zetoze eta Ayesaren egoitza Donostian geratuko zela.

Hala ere, Eusko Jaurlaritzako zenbait ordezkariak Kutxa Fundazioari presio egiten jarraitzen du, duen jarrera berriz aztertu eta, azkenean, Ayesa ITren erosketa-eragiketan sartzea erabaki dezan.

Horiek horrela direla, hauxe da gure

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio argitzeko ea Kutxa Fundazioaren departamentu teknikoak egindako txostena kontutan duen, Ayesa ITren erosketa-eragiketan ez sartzea gomendatzen duena.
2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, txosten hori baldin badauka, ateratzeko argitara, haren edukiaren berri izateko jendeak.

Donostia, 2026ko martxoaren 5a

Borja Corominas Fisas

Alderdi Popularraren udal taldearen bozeramailea